

Altza

Euskarari 23 baiezkoko biribil

Asteartean, hilak 8, Bai Euskarari ziurtagirien banaketa ekitaldia egin zuten Casares kultur etxean. 23 gizarte eragilek jaso zuten ziurtagiria.

Euskararen Udal Patronatuak, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak eta Altzako Bizarrain elkarteak Altzako Euskararen Plan Estrategikoa abian jarri zuten 2001ean. Lehenik, ikastetxeak, kultura, eta aisialdia eta kirola izan zituzten aztergai. Bigarrenik, merkataritzako, ostalaritzako, zerbitzuetako eta lan munduko gizarte eragileengana jo zuten euskararen egoeraren diagnosis egiteko eta eragileek euskararen aldeko urratsak eman zitzaizten. Aipatutako esparruetan euskararen aldeko konpromisoak hartzeko prest agertu diren eragileei Bai Euskarari ziurtagiria eman zieten joan den asteartean.

Ziurtagiriak banatu aurretik, Kontseiluko idazkari Xabier Mendigurenek eta Euskararen Udal Patronatuko zuzendari Eburne Otamendik, besteak beste, euskararen planaz hitz egin zuten. Eburne Otamendik Altzan euskararen normalizazioaren alde "urrats eraginkorrak" ematen ari direla eta altzatarak euskara bultzatzeko egiten ari diren



ahalegina "eskertzekoa" dela esan zuen. Xabier Mendigurenek, lehenik eta behin, Donostiako Udalak Euskararen Plan Estrategikoa Altzan garatzeko hasieratik azalduzako jarrera goraiatu zuen. Ondoren, Jarraipen Batzordeari eta Bai Euskarari ziurtagiria jaso duten guztiei eskerrak eman zitkien. Azkenik, Mendigurenek Bai Euskarari egitasmoa Euskal Herri mailakoa dela gogorarazi zuen: "Euskal Herriko ia 100 udalerrri parte hartzen ari dira egitasmoan. Prozesua jende guztiari irekia da. Euskaldu-

nek zein euskaldunak ez direnek badute euskararen normalizazioaren alde urratsak ematea".

Jarraipena eta ebaluazioa

Bai Euskarari ziurtagiriak banatu dituzten arren, plana ez da oraindik bukatu. Hemendik aurrera, konpromisoak hartzeko prest agertu direnei jarraipena egingo zaie eta urtebete barru ebaluazioaren txanda iritsiko da. Gainera, Bizarrain elkarteke kide Jon Sanchezek eta Arantza Hernandezek kon-

Ziurtagiria jaso dutenen zerrenda:

- 51. estankoa
- Igone loteria denda
- San Martzial zahar etxea
- Brintza aholkularitza
- Casa Fermin taberna
- El Nido taberna
- Goiz-Alde gozotegia
- IAE aholkularitza
- Imanol harategia
- Itziar Gurrubaxaga harategia
- Ipotx taberna
- Lanbroa taberna
- Marques y Mugica aholkularitza
- Menabi-Skoda auto-saltokia
- Peñuelo paperdenda
- Rosa Hidalgo zapatadenda
- Valentin Lopez iturgintza
- Zelaia-Bañales farmazia
- Altza euskaltegia
- Altzako Udal Kiroledegia
- Bizarrain Kultur Taldea
- Donostiako Erakuntza Institutua
- Herri Ametsa ikastola

promisoak hartu ez dituzten eragileengana berriro joko dutela nabarmendu zuten.

Lan gogorra

Altzako Merkatarien Elkarteke kide Itziar Prietok ziurtagiria jaso duten dendariak ordezkatu zituen astearteko ekitaldian. Itziarren hitzetan, plan estrategikoa oso garrantzitsua da. "Lan gogorra da, Altzan gehiengoa jatorriz kanpotarra delako eta askok ez dakitelako plana zehatz-mehatz zer den. Helburua jendeak Altzan euskara beste modu batean hartzea da. Alegia, euskara gurea den zerbait bezala hartzea. Altzan jende gaztea euskaraz egiten entzutea gero eta ohikoagoa da. Helduek, baina, oso gutxi egiten dute oraindik".

Mozkor Frentekideok-en finalak

Larunbat goizean, hilak 12, Mozkor Frentekideok Pala Txapelketaren finalak jokatu dira Herrerako frontoian. Bigarren mailako finala Kurrusko VII-Mudito eta Txiki-Trasmotxa bikoteek jokatu dute. Lehen mailako finalari dagokionez, Maitia-Batusi eta Fiti-Blaspi ariko dira nor baino nor. Sari banaketaren ondoren, txapelketan parte hartu dutenek, jokalariei ohieki eta antolatzaileek Peruene baserrian bazkalduko dute.

